

# Janbattit Dirassar

Herria astekariko zuzendaria

## 4.000. zenbakira iristeko prest

Herria astekariaren 3000. zenbakia plazaratu da udaberria iritsiz batera. Herriak 65 urteko ibilbidea egin du. Piarres Lafitte eta Emile Larre apez zuzendarien ondoren, Janbattit Dirassar (Hazparne, 1937) kazetaria da Herriaren zuzendaria. Zuzendari laiko prestua.

MIKEL ASURMENDI

Argazkia: Lander Arbelaitz

ESKUALDUNA, AINTZINA, HERRIA... Iparraldeko euskal agerkarien izenak dituzu. Lehen biak, Xurien eta Gorrien arteko lehia politikoaren garaian sortuak. Gorriek *Le Reveil Basque* astekaria kudeatzen zuten. Xuriek, berriz, *Eskualduna* sortu zuten 1887an. Haren segida da *Herria*: “Herriak 1944ra arte segitu zuen, alemanen kontrako gerla bukatu zen arte. Egileak alemanekin akomeatu baitziren gutti-aski. Gerla ondoren, Leon Leon, Saint Pierre, Jean Elizalde *Zerbitzari* apezak bildu eta ‘ez da Euskal Herririk euskarazko astekari gabe’ deliberatu zuten. Baziren ere laikoak: Louis Dassance, Jules Mulier *Oxobi*... Uztaritzen apeza zen Piarres Lafitteri aldizkariaren ardura hartzea proposatu zioten hauek guztiek. Lafitte ezagutua zen alemanen kontrakoa izateagatik. Lafittek berehala esan zuen baietz, baldintza batekin —apeza zenez gero lan asko zuen—, ez zuela horrelako lana hartuko, apezpikutegiaren baimenik gabe. Harrez geroztik, anitzek uste ukan dute *Herria* elizaren agerkaria dela, baina ez da egundaino hala izan. Egia da apez euskaltzaleak ukan dituela kasik beti buru, duela sei urte ni zuzendari izendatua izan arte. Baina laikoak ere izan dira, politikari demokrata-giristinoak, Mixel Labeguerie eta Jean Errecart, besteak beste.

**Gerla garai zailen ondoren abiatu zen *Herria*. Kuraia behar zen orduan.**

Ziur! Lafittek bizpahiru hilabetez traba handiak ukan zituen. Lehenik



argitalpen baimena lortzeko, eta bestealde, papera zuhur edo eskas zelako. Paperik ezin ukanik abiatu zen *Herria*, oztopo guztien gainetik.

### Ordukoak bai pasadizoak!

Pentsa. 1. zenbakia 1944ko urriaren 19an atera zelarik, aleak Baionako postara eraman zituzten banatzeko eta hauxe erran zioten Lafitteri: “Ez duzu egiazko baimenik, ezin dugu bidali”. Lehenbiziko zenbakia Baionan gelditu zen. Gatazkak segitu zuen baimena lortzeko, eta azaroaren 16an agertu zen 2. zenbakia. Biak batera bidaliak izan ziren harpidedunei, bi orrialde ziren.

**Herriak 3.000. zenbakia karrikaratu du udaberrian, baina gehiago badira.**

Baiki. 1949an, bosgarren urtemuga ospatzeko, Lafittek *Herria* pixka bat handitzea erabaki zuen, sail berri batzuk irekiz aldizkariari beste begitarte bat emateko. Horren seinale gisa edo, irudiz, erabaki zuen ere sailkapena 1. zenbaki berritik hasiko zela. Erran nahi baita, 1950eko urtarrilaren 5ean *Herria* berrizendatu zuten nolazpait. 3.000 zenbaki direla diogu, baina *Herriaren* 3.295 dira.

### Zein da *Herriaren* jitea?

Irekiak gara, baina humanismoa edo jendetasuna atxikitzen dugu, eta euskalduntasuna, hau berez doa. Emile Larrek kendu zuen frantsesez urtetan agertzen zen artikulu bakarra. Lafittek baimena galdatu zuelarik, orduko mandatari batek erran zion: “Aste-

## “Patxi Lopezengandik zerbait erdietsiko du EEPk! Ala ez?”

### Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak jasotzen ditu. Kezkatuak al zarete aldaketaren aitzinean?

Kezkatuak gaude, baina ez lehen baino gehiago. Ikusi behar da aldaketa nola itzulikatzen den, nehork ez daki gauza handirik. Gauzaño bat alta: EEP sortu zenean ni ez nintzen batere bero erakunde berri horrek egin zezakeenarekin, jadanik izan baitziren holakoak. Ele ederrak eta onak, baina konkretuki gauza gutti. Alegia, gauza batzuk ez dira batere ongi joan eremu honetan. EEP orain ari da kanpaina batzuk lantzen laguntza gehiago ukan dezagun eta biziki ontsa joan dira. Bestalde, guk salatzen dugu Kontseilu Orokorren promozio kanpainak egunkari han-

diari [Sud-Ouest] eta haren umea astekariari [La Semaine] laguntzeko direla. Aspaldian galdatzen diogu laguntza denei berdin ematea: Euskal Irratiei, euskarazko agerariei... EEPren sostengua dugu orain galdatzeko, indar gehiago. Zer emaitzak lortuko ditugun ez dakigu, baina itxaropena badugu, EEPk nahikaria baitu gu laguntzeko.

### Patxi Lopez lehendakari baldin bada, alta.

Entzuna dut Patxi Lopez biziki adiskidea dela Frantxoa Maitiarekin [PSko kidea]. Maitia EEPko kidea da. Beraz Maitiak euskara maite badu, eta berak hala dio, eta nik hala pentsatzen dut, Patxi Lopezengandik zerbait erdietsiko du EEPk! Ala ez? Esperantza atxiki behar dugu.

kari euskaldunik ez duzu ateratzen ahal, ez osoki euskaraz ari denik, artikulatu bat bederen behar duzu frantsesez eman. Legez horrela da”. Lafittek sinetsi zion. Emile Larrek arrazoi osoz erabaki zuen hura kentzea.

### Herriak bere idatz moldea atxiki du.

Bai, saiatu gara beti ere idatz moldea begiratzen. Herrietako berriemaileek beren euskalkia erabili dezatela nahi dugu. Gero, aditzaren aldetik eta besitetik, euskara batua sartu dugu, baina hor badugu arazo bat, ez bakarrik Herrian. Batzuek nahi dute lasterka joan, eta beste batzuek berriz poliki. Guk erdibide bat kausitu dugu edo entseatzen gara bederen. Guk eta irratilari batzuek hainbat hitz berri sartu dugu eguneroko bizitzan, eta denek egokiak kausitzen dituzte. Adibidez, Kirolak lehen Sporra erra-ten zen hemen. Denen ulergarri izan dadin euskara erabiltzen ari gara.

### Geroa nola ikusten duzu, berriz?

Garbiki erran behar da: gazteak ez dira irakurle handiak. Berrikitari irakurri dut, EAEn egindako buru ikerketa batean, belaunaldi gazte bat telebistari emana bizi izan zela. Orain aldiz, 15-20 arteko gazteek, Hegoaldean, eta hemen ere, telebistarentzat ez dute esker handirik.

Internet eta teknologia berriak maite dituzte, eta guk horiek ere lotu behar ditugu emeki-emeki, gazteak nahi baditugu bildu. Hala ere, paperezko prentsak toki bat atxiki behar du gure ustez. Izan ere, adin batean aldatzen gara. Nik eza- gutzen ditut 40 urteko batzuk, duela 10-15 urte ez zutela Herriaren berriekiko batere eskerrik, eta orain berriz heldu dira gurera. Herrietako erroak sentitzen dituzte, herriaren erroak sentitzea ona da. 2.500 harpide dugu. Urteik urtera murrizteño bat bada, baina badaude ere irakurle berriak.

### Mentura baduzue, beraz.

Mentura eta itxaropena! Urrats bat egin dugu, ez bakarrik gaztearengana joateko, orokorki jende guztiarengana. Errate baterako, jendeak maite ditu irudiak. Baina ez orain bakarrik, lehen ere bai. Baina ez zuten ukaten ahal. Gure amatxi batzuek erra-ten zuten: “Liburu horretan badirela sainduak?”. Bada-kizu zertaz ari ziren? Liburuaren marrazkiak edo irudiak galdatzen zituzten. Sainduen irudiak nahi zituzten haiek ere, ez baitzituzten aski ikusten. Eta orain ere irudia nahi du jendeak, eta kolorea eta arintasuna. Duela bost urte,

2004an, Herriak 100 urte bete zuela-rik kolorea bi orrialdetan ezartzea erabaki genuen: lehenean eta zortzi-garrenean. 3.000 zenbakia atera dugularik gehigarri berezia, hor ere kolorea sartu da. Herria handitu nahi dugu zortzi orrialdetik hamabietara lehenbiziko urrats batean. Astero ez badugu egiten ahal, bi astetarik behin. Eta sail berri batzuk irekitzea nahi genuke, gazteek maite dituzten gaiak eskaintzeko. Baina horretarako harpidedun gehiago behar dugu. Eta preseski, “harpidedun gehiago izateko hori egin behar duzue” erra-ten digute.

### 65 urte bete ditu Herriak. Janbattit Dirassarren ekarria ere agerikoa da.

Nihaurek ez dut erran behar zer ekarri dudan. Hemezortzi urtetatik atxikia izan naiz Herriari, eta nahi nuke segitu zenbait denboraz, osagarria baldin badut bederen. Ez naiz bakarra. Hemen dira ere Pello Jojajuria erredakzio-burua eta Marixan Brement idazkaria, baita 40 berrikeritariz osaturiko sarea ere. Jean Haritselharrek Herria 4.000ra iritsiko dela dio. Gu ez gara hemen izanen, baina Herria bai. Hori da gure ametsa. ■

[www.argaia.com/multimedia](http://www.argaia.com/multimedia)  
helbidean, gai honi buruzko bideoa.

Babeslea: Bergarako Euskara Zerbitzua

